

Iparaldeko ikastolen egutegiak salgai

Iparaldeko ikastolek urtero egin ohi duten bezala, 2024ko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako idazkaritzan** egongo dira **salgai**. Bakoitzaren salneurria, **4 €**.



Neguko katalogoa

Urtero bezala, aurten ere Ikastolen Elkarteak [Neguko katalogoa](#) argitaratu du eskaintza interesgarriekin. Eskatera egin nahi baduzue, usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz egin dezakezue. Neguko oporrak baino lehen jaso ahal izateko, abenduaren 4a baino lehen eskatu beharko da.



Jangela abenduaren 20an

Abenduaren 20ko eguerdian DBH, LH eta HH 3-6 urtekoen eskolak 12:30ean amaitzen direnez, jangelako bazkaldarrak **etxera bakarrik** joatea nahi izanez gero, **baimena** usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz eman beharko da.

Bestalde, eguneroko bazkaldarrei gogorarazi nahi zaie, abenduaren 20ean **jangelako zerbitzua erabili behar ez badute**, ahalik eta azkarren usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz **jakinarazi** behar dutela.



Mugikorraren inguruan zenbait aholku

Nola ematen diegu telefonoa?

Askotan, oparizat, baina adituek ez lieke sekula telefonoa oparitan emango bere seme-alabei.

Opariak ez dira baldintzapean ematen. Aldiz, gure seme-alabei telefonoak erosten dizkiegunean, sarri gurasoen kontrolerako aplikazioen bat instalatzen diegu egiten dutena zaintzeko, edota bestela, baldintzak jartzen dizkiegu.



Esango genuke aurrez lanketarik egin gabe ematen zaiela sarri telefonoa. Gurasoontzako erronka handia da hori, besteak beste, guk ez dugulako ezagutu mundu hori gure gazte garaian. Guk geuk nola erabiltzen dugu, esaterako, WhatsApp-a? Gogoeta handia daukagu egiteko.

Mugikorra opari? Zenbait gomendio:

- ✓ Opari bezala ematea ez da gomendagarriena.
- ✓ Eman aurretik erabilpenaren pedagogia egin.
- ✓ Ematerakoan kontratu bat egin.
- ✓ Mugikorraren ardura gaztearena da, mugikorrarekin egiten duenaren erantzukizuna, gurasoona da.

[Informazio gehiago...](#)

HAUR HEZKUNTZA

0-1 urteko haur eskolako gela-bilera

Abenduaren 19an, asteartea, arratsaldeko 17.00etan, 0-1 urteko haurren gela-bilera izango da (0-1 gelan).

Bilera modu lasaiagoan egite aldera, haurrik gabe etortzea eskatzen dizuegu.



Neguko festa

Datorren abenduaren 20an, asteazken eguerdian, oporrak hartuko ditugu.

Egun horretan, txistorra jango dugu. Dakizuen bezala, aurten DBHko ikasleek prestatuko dizkigute ogitartekoak, eta dirua beraiek egingo duten ikasturte bukaerako bidaiarako izango da. Beraz, gogoratu 1,5 euro ekartzeaz.



Ondoren, 11:45ean, Bordatxo pareko Olentzerori abestuko diogu. Bukatzean ikastolara itzuliko gara. Beraz, haurrak betiko lekuan eta orduan jaso behar dituzue. Kontuan izan, baserritarrez jantzita etorri behar dutela.

LEHEN HEZKUNTZA

Ebaluazio-txostenak

Astelehenean, abenduaren 18an, igoko dira LH4., 5. eta 6. mailako ikasleen ebaluazio txostenak Alexia aplikaziora.



Hatz 10 kobrantza

Hilabete honetako erreziboarekin batera, **Hatz 10 mekanografia** ikastaroaren zenbatekoa kobratuko zaie **LH4., 5. eta 6. mailako ikasleei**. **Kostua 5 €** izango da.



Irteera-kobrantzak

❖ LH6

GAUR, LH 6. mailako ikasleek **Zumaiara** egindako irteeraren kostua kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **7,80 €** izango da, hona hemen zehaztapenak:

- Trena: 3,05 €
- Sarrera: 4,75 €
- **Guztira: 7,80 €**



❖ LH2

GAUR, LH 2. mailako ikasleek **Orioko Txurruka aterpetxera** egingo duten irteeraren 1. zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **20 €** izango da.

❖ LH3

GAUR, LH 3. mailako ikasleek **Irrisarriland-era** egingo duten irteeraren 1. zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **30 €** izango da.

Abenduak 20

LHko ikasle-irakasleok, **asteazkenean, abenduak 20**, goizeko **9:30ean kalez-kale abestera** irtengo gara. Ondoren, ikastolan txistorra goxoa jango dugu.



LH2. Mailako familientzat oharra

Ohar honen bitartez, Igeriketa planaren nondik norakoak zehaztu nahi dizkizuegu. Horretarako, datu nagusienak eta funtzionamendu orokorra azalduko dizkizuegu.



DATUAK

-Ekintza burutzeko datak (15 egun):

- ✚ 2A gela (Larraitz) – **Urtarrilaren 8tik 26ra** (biak barne). **10:00etatik 11:00etara**.
- ✚ 2B gela (Ursula) – **Urtarrilaren 8tik 26ra** (biak barne). **11:00etatik 12:00etara**.

-Beharrezko materiala:

- *Motxila
- *Bainujantzia
- *Igeriketako txanoa (ahal bada, telazkoa ez)
- *Igeriketako betaurrekoak (aukeran)
- *Toalla
- *Txankletak

Dugun denbora urria dela eta, kloroa kentzeko dutxa azkar bat soilik hartuko dute (bainujantzia eta txanoa jantzita dituztela), ondorioz, ez dugu xaboi edo txanpurik beharko.

FUNTZIONAMENDUA

-Ekintzak iraungo duen hiru asteetan, ikasgelako ordutegiak aldaketa batzuk jasango ditu, ikasgai ezberdinak kaltetuak izan ez daitezen.

-Kiroldegian irakasle baten ardurapean egongo dira eta saioa 2 monitore espezializatuek burutuko dute.

-Egun horietan **ikasleak 12:30etan ikastolan** jasoko dituzue.

Arropa galdua

Ageri-aldeko sarreran dagoen arropa galduen txokoa beteta dago. Beraz, abenduaren 20an bertan dagoen arropa Caritaseko edukiontzira eramango dugu.



LH2. Mailako familientzat oharra

LH2. Mailakoak urtarilean txirula ekarri behar dute, musikako liburua eta karpeta kantekin batera. Etxean txirula ez dutenek Olentzerori eskatu diezaioke.



BIGARREN HEZKUNTZA

Irteera-kobrantza DBH1

GAUR, DBH 1. mailako ikasleek Arantzako aterpetxera egingo duten irteeraren 1. zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **30,00 €** izango da.

Datorren astean, **abenduak 20**, DBH1. mailako ikasleei Eureka museoko sarreraren kobrantza egingo zaie. Kostua **7,50 €** izango da.



Material-kobrantza

Abenduaren 16an, **hileko erreziboarekin batera**, DBHko ikasleei **2023/24** ikasturteko **eskola-materiala** kobratuko zaie.

Materialaren kostua, aukeratutako hautazkoen arabera, ondokoa da:

DBH 1:

Teknologia eta digitalizatorako hastapenak: 39,70€

Osasun fisikoa eta emozionala: 34,60€

Frantsesa: 34,60€

DBH2:

Frantsesa: 38,93€

Ikus-entzunezko tailerra: 39,93€

Sakontze tailerra: 40,93€

Osasun fisikoa eta emozionala: 38,93€

DBH3:

Frantsesa: 38,40€

Osasun fisiko eta emozionala: 38,90€

Kultura klasikoa 39,80€

Sakontze tailerra 40,40€

DBH4:

Material-kostuaren xedapena ikasle bakoitzari gelan entregatu zaio.

